

JARDUEREN OROITZA

2014



**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Administración Pública

ISBN: 978-84-7777-462-4

D.L.: SS - 795/2015

Fotokonposaketa eta inprimaketa:  
Itxaropena, S.A., Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

# AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	7
2. IVAPen antolakuntza eredua	9
3. Kudeaketaren arloko mugari eta lorpen garrantzitsuenak 2014. urtean	19
4. 2014an eskainitako zerbitzu eta produktuak	21
5. 2014ko argitalpenak	45
6. IVAPeko kideen parte hartzea biltzar, jardunaldi eta adituen foroetan 2014an	49
7. 2015erako helburu nagusiak	51



# 1.

## AURKEZPENA

Beste urte batez, IVAPen Jardueren Oroitza aurkeztera gatoz, gure zerbitzuen hartzaile diren administrazio eta herritarrei 2014ko lanaren berri ematen duten datu esanguratsuenak helarazteko asmoz.

Kudeaketa-balantze guztietan bezala, gurean ere badira hobetze-bidean berrikustea eskatzen duten alderdi batzuk; baina, oro har, esan liteke helburuen betetze-maila oso handia izan dela. Arrakasta horren protagonistak egunero-egunero eta zailtasunak zailtasun IVAPen arlo publikoarekiko konpromisoan ahalegintzen diren pertsonak ditugu.

Horregatik guztiagatik, eskerrik asko denoi.

IVAPeko ZUZENDARITZA



IVAPeko zuzendaritza-taldea.



# 2.

## IVAPen ANTOLAKUNTZA EREDUA

IVAP, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Herri Administrazioa eta Justizia Sailari atxikia. EAeko herri-administrazioen zerbitzura dihardu eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke IVAPen xedeak:

- **GIZA BALIABIDEAK:** herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatzea eta prestatzea.
- **EUSKARA:** herri-administrazioen zerbitzurako langileen euskalduntzea, itzulpenak, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkeraren normalizazioa.
- **AZTERLAN ETA ARGITALPENAK:** ikerlanak egitea eta eskolak ematea, bai administrazioaren inguruan, era zabalean, bai euskal autonomiaren berezitasunen inguruan zehazki, eta baita liburuak zein aldizkari espezializatuak argitaratzea ere.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen Lege Jaurbideari buruzko uztailaren 27ko **16/1983 Legean**, IVAPen egiturari eta zereginei buruzko alderdi esanguratsuak xedatu ziren; hona hemen:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeko bidea zabaltzen du.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortu eta nola osaturik egongo diren eta zein eginkizun izango duten zehazten du. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek.
- IVAPek bere aurrekontua du.
- Lege horrek Oñatiko Unibertsitate Zaharraren eraikinean ezartzen zuen IVAPen egoitza; **Euskadiko Ondareari** buruzko Legearen testu bategina onartzeko **2/2007 Legegintzako Dekretuak**, ordea, hori aldatu egin zuen eta IVAPen egoitza Gasteizen ezarri.

## 1. TAULA. Zaingo Batzordeko kideak (2014)

<b>Zaingo-batzordearen presidentea</b>
Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioa eta Justizia Saileko sailburua
<b>Zaingo-batzordearen presidenteordea</b>
Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetarako sailburuordea
<b>Berezko kideak</b>
Ejko Funtzio Publikoko sailburuordea IVAPeko zuzendaria IVAPeko idazkari nagusia
<b>Lurralde historikoen ordezkari bana</b>
Arabako Foru Aldundia Bizkaiko Foru Aldundia Gipuzkoako Foru Aldundia
<b>Toki administrazioaren hiru ordezkari, EUDELeK izendatuta</b>
Araba, Gasteizko udaleko zinegotzia Bizkaia, Mungiako udaleko alkatea Gipuzkoa, Irungo udaleko zinegotzia
<b>Administrazioko langileen hiru ordezkari, sailburuak izendatuta</b>
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

## MISIOA

IVAPen **MISIOA** da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan **aritzea**, herritarrei ematen dieten **zerbitzua eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna** izan dadin lortzeko. Lankidetzeta hau zerbitzu publikoaren **balio komunetan oinarritzen** da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan aholku eman eta ikertu.



## IKUSKERA

IVAPek euskal herri-administrazio guztien **erreferentzia-zentro** izan nahi du **berrikuntzaren eta kudeaketaren bikaintasunaren** alorrean, **produktu eta zerbitzu berritzaile** eta **kalitatezkoen eskaintzari** esker, **bezeroari zuzenduta** eta teknologia berrien erabilera aurreratuan oinarrituta.

Bere **marka-irudia** sendotu eta herri-administrazio beste erakunde eta eskolen erreferentea izan nahi du, honela:

- Euskal herri-administrazioetako hautaketarako eta prestakuntzarako organo komuna izanik.
- Administrazio-jardunean euskararen erabilera normalizatzeko funtsezko eragilea izanik.
- Euskarazko itzulpenetan eta lege- eta administrazio-arloko terminologian erreferentea izanik.
- Ikerketa-zentro aintzatetsia izanik bere eskumeneko arloetan.
- Euskal herri-administrazioen antolakuntza eta kudeaketa hobetzeko erakunde aholku-emaile aintzatetsia izanik.

IVAPek autonomia nahikoa izan nahi du herri-administrazio guztiekiko duen Misioa osorik betetzeko; hartara, **hiru lurren historikoetan dago errotuta** eta hiruretan du egoitza.

Halaber, sortzen zaizkion behar eta erronken arabera, bere egitura **antolatzeko gai** izan beharko du, **kudeaketa-ereduan oinarritutako kudeaketa parte-hartzailearen** sistematika oinarri harturik.

**Aliatu estrategikoen** sarea izan beharko du; aliatu publikoak zein pribatuak, eta proaktiboak jarduera-esparru guztietan.

Hori guztia lortzeko, IVAPek **gaitasun handiko pertsonaz** osatutako taldea beharko du, **proaktiboak**, proiektuarekiko **konpromisoa** ageri dutenak, **gogobetetze-maila handikoak** eta erakundearen **aintzatespena eta aitortza** sentitzen dutenak.

## BALIOAK

Misioa betetzeko eta Ikuskera lortze aldera, hala erakundearen nola erakundea osatzen duten pertsonen jokamoldea **arabide juridikoan xedatutako printzipioen** arabera izango da beren jardunetan: herritarrentzako zerbitzu publikoaren etika, efikazia, efizientzia, gardentasuna, objektibotasuna, erakunde barruko zein erakunde arteko lankidetzeta eta pertsonen arteko tratu-berdintasuna.

IVAPentzat honako hauek ere **funtssezko balioak** dira:

- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza
- Bezeroarenganako orientazioa
- Euskararen erabilerarekiko konpromisoa
- Ingurumena zaintzea
- Parte-hartzea eta komunikazio eraginkorra
- Pertsonak errespetatzea
- Proaktibotasuna
- Profesionaltasuna
- Talde-lana
- Zerbitzu publikoa izateko jarrera

2013-2016 epealdian IVAPek honako balio hauek landu nahi ditu bereziki: **gardentasuna, efizientzia, berrikuntza eta proaktibotasuna**. Halaber, azaldutako balioekin bat etorriko den lidergo-estiloa bultzatu nahi du.

## EGITURA



## ZUZENDARITZA

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, bertako langileen burua izango da, egiaztagiriak, tituluak eta diplomak emateaz gain, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

## KOORDINAZIO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZA

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatzeko du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, EVETU (Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola) eta Zerbitzu Orokorrak.

## HAUTAKETA ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORETZA

Hautaketaren eta prestakuntzaren gainean egin beharrekoak egitea, horixe du egitekoa. Horretarako, Hautaketa Zerbitzua eta Prestakuntza Zerbitzua ditu.

## EUSKARAKO ZUZENDARIORETZA

Euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea, horra hor zuzendariordetza honen eginkizuna. Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak osatzen dute zuzendariordetza hau.

## PERTSONAK

IVAPen **122 pertsonak** lan egiten dute, % 65 emakumeak eta % 35 gizonak, modu honetan banatuta:

- Zuzendaria
- Idazkari nagusia eta 2 zuzendariorde
- Goi-kargudunen idazkaria
- 7 zerbitzuburu, 2 emakume eta 5 gizon
- 5 arloburu, 3 emakume eta 2 gizon
- 76 goi- eta erdi-mailako teknikari, 52 emakume eta 24 gizon
- 27 administrari, 19 emakume eta 8 gizon
- 2 menpeko, gizonak biak

Kudeaketa-sistematikari dagokionez, zehaztu beharra dago 2014an IVAPeko kideen %45 hobekuntza-ekintzen arduradun izan dela, eta %58k parte hartu duela martxan dauden 17 kudeaketa-batzordeetakoren batean edo indarrean dauden 10 lan-taldeetakoren batean.

## LANTOKIEN KOPURUA ETA HELBIDEA

Langile gehienek **Gasteizko** egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek eskueran dituzte IVAPen beste hiru egoitza hauek ere: **Bilboko**, **Donostiako** eta **Oñatiko**.

<b>IVAP - Vitoria-Gasteiz</b> Donostia-San Sebastián 1 01010 Vitoria-Gasteiz	<b>IVAP - Oñati</b> Unibertsitateko etorbidea 20560 Oñati
<b>IVAP - Bilbao</b> Errekalde zumarkalea 18, 1. 48009 Bilbao	<b>IVAP - Donostia-San Sebastián</b> San Bartolome 28 20007 Donostia-San Sebastián

## KUDEAKETA SISTEMATIKA

2001. urtean, IVAPen zuzendaritzak apustu bat egin zuen; hain zuzen ere, erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntzako proiektu bati ekitekoa. Proiektu hori, hasieran, kanpoko bezeroei zerbitzua ematea dakarten prozesuetan zentratu zen, “Zerbitzuko prozesuak”; baina, eguneroko kudeaketari eragiten dioten prozesu guztietara zabaltzeko asmoa zuen. Horrela sortu zen **KALITATE proiektua** deritzona, borondate eta gurari onez betea. Proiektuaren inguruan bazegoen, hala ere, nolabaiteko ezjakintasuna, izan ere, proiektua sortzerakoan, ez genekien zein zaila gerta zitekeen **prozesuetan oinarritutako** eta **etengabeko hobekuntzaren** ikuspuntua duen **kudeaketa-sistematika** bat ezartzea.

Lortu nahi ziren bost helburuak honako hauek dira:


1. Prozesuak sistematizatu, erantzukizunak argitu eta eginkizunak estandarizatzea.
2. Prozesuen eraginkortasuna eta efikazia hobetzea.
3. Etengabeko hobekuntzarako tresnak ematea erakundeari.
4. Kalitatearen kultura ezagutu eta ezartzea.
5. IVAPek erantzun egokia ematea Eusko Jaurlaritzaren Eraberritze Planari.

Egun, IVAPeko Prozesuen Mapak **57 prozesu** ditu, eta gure xedea da prozesu bakoitzak honako hauek izan ditzan:

- **Eguneratutako dokumentazioa:** PR-fitxa, metodo operatiboa (hala badagokio), jarraibideak (JAR), inprimakiak (INP) eta dokumentuak (DOK).
- **Adierazleak:** kudeaketa kontrolatu eta kudeaketaren emaitzak eta helburuak ebaluatzeko modua izateko.
- **Hobekuntza-plana,** hobekuntza-ekintzez osatua eta ekintza bakoitzaren helburua, arduraduna, hasiera-eguna eta aurreikusitako amaiera-eguna zehazten dituena.


Eta prozesu bakoitzean, **Hobekuntzako PDCA zikloa** (planifikatu, egin, egiaztatu eta doitu) ezarri ahal izate aldera, **arloko edo zerbitzuko 11 batzorde** eratu ziren, eta, horiez gain, baita **zuzendaritzako batzordea ere**. Hain zuzen ere, batzorde horiek sustatu eta ebaluatu dituzte prozesu bakoitzarekin zerikusia duten hobekuntza-ekintzak. **Sistema berrikusteko txostenen** bidez, berriz, prozesu bakoitzari lotutako hobekuntza-ekintzak bultzatu dira. Arloko edo zerbitzuko 11 batzordeok bat zetozen erakundearen unitate organikoekin (arloak eta zerbitzuak), eta, arrazoizkoa denez, berek kudeatzen zituzten prozesu operatiboen jabe ziren. Zuzendaritzako batzordeak, bestalde, gidaritza- eta koordinazio-zereginenez gain, gainerako prozesu guztien jabetza hartzen zuen bere gain.

2006ko Kudeaketa Planaren Ebaluazioaren esparruan, aurrerapauso bat egin zen prozesukako kudeaketaren metodologian, eta IVAPen kudeaketa guztia 17 batzorderen bidez antolatu zen. Azkenik, **2012an** egindako **Gogoeta Estrategikoan** erabaki da **17 kudeaketa-batzorderen** bidez garatuko dela gure sistematika:




2014an zehar, IVAPek prozesu-mapa ikuskatu du. Aurkezpen berri hori IVAPek eskaintzen dituen zerbitzuetan oinarritzen da; aurrekoak, ordea, berezko egitura organikoa islatzen zuen. Hau da zerbitzu eta produktuetan oinarritzen den mapa berria:

### 9 makroprozesu. Kudeaketa batzordeak



Eta, hori guztia, **EFQM Bikaintasun Ereduaren** “babespean”. Izan ere, 2001. urteaz geroztik, IVAPek EFQM eredu hartu zuen gidari. Jakin bagenekien lehenengo urratsetan honako hau egiaztatu besterik ez genuela egingo –modu egituratuan bada ere–: IVAPek hobetzeko bide luzea zeukala (eta daukala), gure Erakundea EFQM ereduak proposatzen dituen kudeaketa bikainerako “irizpideak” kontuan.

Jarraian, IVAPen egindako aurrerapenak ageri dira, **EFQM Bikaintasun Ereduari** dagokion irizpidean bilduta:



- PERTSONEKIN EMAITZAK**
- Gogobetetzearen 4 neurketa
  - Ondorioz, 4 hobekuntza plan
  - Prestakuntza Planen ebaluazioak (7)


- BEZEROEKIN EMAITZAK**
- Bezere zuzenen gogobetetze inkestak
  - Bezere instituzionalen gogobetetze inkestak
  - Gogobetetze-indize sintetikoak eta ponderatuak

- GIZARTEAN EMAITZAK**
- Konpromisorako Diploma, 2009 eta 2011
  - Zilarrezko Qa
  - Prentsako errekonozimenduak, zuzenak edo zeharkakoak
  - Zerbitzu irekiak web orrian
  - Bekak/Laguntzak / Lanak ikerketan
  - Garapenerako lankidetzak
  - Ingurumenarekiko konpromisoa

- FUNTSEZKO EMAITZAK**
- Aginte Taula Integrala
    - Aginte Taula Estrategikoa
    - Kudeaketarako Aginte Taula
    - Helb. Estrategikoekin erlasionaturiko PRetako adierazleak
  - Arrakastarako Faktore Kritikoak ↔ Erronka Estrategikoak ↔ Adierazleak
  - Hausnarketa Estrategikoaren ondoriozko ekintzen ebaluazioa

Horiek horrela, hona hemen irudi hau, **IVAPen kudeaketa-sistemaren** laburpen gisara:

## IVAPen Kudeaketa sistema: EFQM



### AGINTE TAULA INTEGRALA

2013-2016 aldirako **Plan Estrategikoan**, IVAPek aldi horretarako ezarri dituen bost erronkak definitu dira. Ildo horretan, aipatutako erronkak gorpuzten dituzten helburu estrategiko eta estrategien betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egite aldera, IVAPek **Aginte Taula Integrala** du.

Aginte-taulako adierazleak hiru multzotan banatuta daude:

- **Aginte-taula estrategikoa:** adierazle “estategikoeak” osatzen dute taula hori, eta aukera ematen dute IVAPen “bizi-pultsua” zertan den ezagutzeko. Adierazle horien definizioa Norton eta Kaplan-en *Balanced Scorecard* metodologiaren arabera egin da.
- **Kudeaketako aginte-taula:** IVAPen jarduera orokorrari lotutako adierazleak.
- **Helburu estrategiko batzuen ebaluazioari lotutako prozesuen adierazleak.**



# 3.

## KUDEAKETAREN ARLOKO MUGARRI ETA LORPEN GARRANTZITSUENAK 2014. URTEAN

### 2014KO AURREKONTUA ETA JARDUERARI BURUZKO DATU NAGUSIAK

- Aurrekontua: 22.064.000,00 €
- 17.282 parte-hartzaile prestakuntza-jardueretan
- 108 parte-hartze hautaketa-epaimahaietan
- 25.367.867 hitz itzulita edo berrikusita
- 14.511 harpidedun Administrazioa Euskaraz aldizkarian
- 23 harpidedun RVAP aldizkarian (Interneten eskura dago)
- 15 argitalpen
- 1.120 funtzionarioek egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat
- 28.133 liburu eta aldizkari espezializatu liburutegian
- 1.600.000 bisita inguru web-gunean

### 2013-2016 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Egungo Hirugarren Plan Estrategiko hau 2009-2012 Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatuko emaitzen fruitua da, batetik, eta IVAPek 2012ko azarotik 2013ko apirilera arte egin zuen hausnarketa estrategikoarena, bestetik. Gainera, gure interes-taldeak kontuan izan ditugu eta bezeroen beharrianak eta igurikimenak ezagutzeko esfortzua egin dugu. Azkenik, IVAPeko langileekin informazio hori guztia egiaztatu ondoren, estrategia osatu dugu.

2013-2016 Plan Estrategikoak berrikusi eta eguneratu egin ditu IVAPen **Misioa**, **Balioak** eta **Ikuskera**, eta finkatu egin ditu **Erronkak**, **Helburu Estrategikoak** eta **Estrategiak**; betiere, Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldirako *Gobernu Programarekin* lerrokatuta; honako bi lerro nagusiekin, hain zuzen: 1.12 **Administrazio eraginkorra eta gardena** eta 1.13 **Administrazio irekia**.

2013-2016 epealdirako, IVAPeko estrategiak ondoko bost erronka nagusi ditu:

- Bete-bete bezeroari begira jardungo duen erakundea izatea
- Produktu eta zerbitzu berritzaileak eta kalitatezkoak garatzea

- Antolaketa malgua izatea eta kudeaketa bikainaren sistematika sendotzea
- Gaitasun handiko, inplikaturako, balioetsitako eta aintzatetsitako pertsonen taldea edukitzea
- Interes-taldeen aurrean duen erreferentziatzko irudia sendotzea

## 2014KO KUDEAKETA PLANA

Aurreko ekitaldietan bezala, 2014ko Kudeaketa Plana deritzon agiria egin zen, 2013-2016 aldirako Plan Estrategikotik zetorrena, hain zuzen. Kudeaketa Planean, batetik, 2013ko ekitaldiko kudeaketaren balantzea egin zen eta, bestetik, 2014. urterako planifikaturako helburuak eta ekintzak bildu ziren: hala plangintza estrategikotik datozenak, nola IVAPen kudeaketa-sistematikaren funtsa diren prozesuetako bakoitzean sortutakoak. Halaber, kudeaketa-plan honek Aginte Taula Osoan 2013. urterako ezarritako helburuen betetze-mailaren ebaluazioa biltzeaz gain, 2014. urteari zegozkion helburuak ezarri zituen.

## 2014AN LORTUTAKO SARIAK

2014an, EUSKALIT Bikintasunerako Euskal Fundazioak Zerbitzuen Karten “Q-epea” egiaztatgiri bana eman zien IVAPeko Itzultzaile Zerbitzuari (IZO), eta Hautaketa Zerbitzuari, administrazioei dagokiena.



IZOko Zerbitzuen Kartaren “Q-epea” egiaztatgiria.

Hautaketa Zerbitzuen Kartaren “Q-epea” egiaztatgiria.





## 2014AN ESKAINITAKO ZERBITZU ETA PRODUKTUAK

### PRESTAKUNTZA

#### PRESTAKUNTZA OROKORRA 2014

##### *Prestakuntza-programak eta planak*

- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
  - On-line prestakuntza eta prestakuntza mistoa (aurrez aurreko saioak dituenak)
  - Aurrez aurreko prestakuntza
  - KNOW INN programa: prestakuntza-ekintza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera doan prestakuntza)
- Irismenaren arabera:
  - Orokorrak edo zeharkakoak
  - Administrazio batek edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak

##### *Prestakuntza-beharren diagnostikoak*

Beharriaren diagnostikoa egiteko, elkarrizketa izan da oinarritzko tresna. Hartara, elkarrizketak egin dira, banan-banan zein taldean, honakoak identifikatzera begira:

- Eguneroko lanean sortzen diren arazoak
- Zereginen eboluzioa lanak egiteko eran
- Proiektu eta programa berrien ezarpena
- Erakundearen kultura-aldaketak

### *Prestakuntzaren ebaluazioa*

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.

Egiten dugun ebaluazioak honako hau jakitea du helburu: ea prestakuntzaren bitartez eskuratutako ezagupenak eta trebeziak lanpostura transferitu diren (transferentziaren ebaluazioa).

### *Prestakuntza-ekintzen homologazioa*

Homologazioa 2007ko otsailaren 1eko Aginduaren arabera (IVAPek prestakuntza-jarduerak homologa ditzan bete beharreko eskakizunak eta prozedura arautzekoa dena, 2007ko martxoaren 6ko EHAAAn argitaratua, 46. zk.).

### *Euskadiko herri-administrazioetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa*

Programa honen helburua da Euskadiko herri-administrazioetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Prestakuntza-programak xede hau du: EAEko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea da xedea.

## **2. TAULA. Prestakuntzaren programazioa eta jarraipena**

ADIERAZLEAK	2010	2011	2012	2013	2014		
Aurreikusitako prestakuntza ekintzen kopurua	731	681	725	678	810		
Egindako ikastaroen kopurua	666	577	639	604	767		
Ikastaroen betetze-maila (%)	% 91,1	% 85	% 88	% 89	% 95		
Matrikula kopurua	12.984	11.610	11.438	11.784	13.638		
					E=2.765	G=1.127	DG*
Ikasleen asebetetzearen adierazle orokorra	7,6	6,86	7	7,9	8,05		
Irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorra	8,0	7,46	7,6	8,3	8,42		

\*E: emakume / G: gizon / DG: daturik gabe.

### 3. TAULA. Prestakuntzaren ebaluazioa

Helburuen lorpena duten prestakuntza-ekintzen kopurua	607
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien portzentajea	% 81
Helburuak lortzen dituzten ikastaroen (on-line eta mistoak) matrikula-portzentajea	% 80
Prestakuntza-ekintzen portzentajea, zeinek estandarrak neurtzeko taula aplikatuta baitute	%100

### 4. TAULA. Homologazioa

Homologazio-espedienteen kopurua	35
Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen portzentajea	% 88
Homologatu den prestakuntza-ekintzen portzentajea	% 86
Homologazio-espedienteei dagozkien ziurtagiriak	341
Erakunde eskatzaileen kopurua	10

### 5. TAULA. Garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa

Erakundeak	Prestakuntza-planak			Langileak		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Udalak	24	29	34	10.179	10.650	11.306
Foru Aldundiak	3	3	3	8.223	8.223	8.145
EHU-UPV	1	1	1	1.548	1.548	1.874*
Ejren sailak	8	6	6	5.034	4.750	2.939
Ejren erakunde autonomoak	4	4	3	1.100	1.100	1.042
Justizia Administrazioako langileen prestakuntza	1	-	-	2.493	-	-
Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia	1	1	1	8.043	8.043	8.000*
Osakidetza	1	1	1	24.895	24.895	25.816*
Irakasleak	-	-	1	-	-	19.991*
<b>Guztira</b>	<b>43</b>	<b>45</b>	<b>50</b>	<b>61.515</b>	<b>59.209</b>	<b>79.113</b>

\*Asteriskoa dutenak asistentzia potentzialak dira besteak asistentzia errealak.

## EVETU: HIRIGINTZA ETA INGURUMENARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

### Hirigintzari buruzko modulu bidezko ikastaroak

Ikastaroak honela egituratuta daude:

1. Sei ikasketa-modulu teoriko-praktikoak egitea, nahitaez (400 ordu); deialdi bakar baten egin ahal dira guztiak edo hainbat deialditan banatuta. Bertaratze-baldintzak (gutxienez % 80a) eta aprobetxamendu-baldintzak (ebaluazio-azterketa gainditzea) beteta, modulu bakoitzaren aprobetxamendu-egiaztagiria ematen da.
2. Bakarkako ikerketa-lana edo «Hirigintzako Goi Ikastaroa» egitea.
3. Aukerako praktikak erakunde edo enpresatan (300 ordukoak).

Ikasleak betekizun guztiak gaindituz gero, IVAPek «Hirigintza Diploma» ematen du.

2013-2014 ikasturtean, ikasle kopuruak gora egin du, eta ikastaro hauek antolatu dira:

- “XXXVII. Hirigintzari buruzko ikastaroa” (Bilbo, 2013-2014).
- “XXXVIII. Hirigintzari buruzko ikastaroa” (Donostia, 2013-2014). Bizi dugun ekonomia-krisiaren adierazgarri zuzena da Ikastaro honetan bakarrik modulu bat egin dela, eskabiderik ez edukitzeagatik.

**Beka-matrikulak:** Ikastaroekin batera zortzi beka matrikula emateko deialdia egin zen, lau Bilboko ikastaroan eta lau Donostiakoan. Beka-matrikula bat esleitu zen Donostian; besteak eman gabe geratu ziren.

**Praktikak:** Eskatu zuten ikasle guztiei (12) esleitu zitzairen, baina hiru ikaslek azkenean uko egin zuten, lana aurkitu zutelako. Ondorioz, bederatzi ikaslek egin zituzten praktikak, udal hauetan: Vitoria-Gasteizen, Agurainen, Bilbon, Santurtzin, Sopelan, Elorrion, Ibarra eta Hernanin. Ikasle bakoitzak 1.500,00 € gehi Gizarte Segurantzako gastuak jaso ditu. Ezin izan ziren udal guztiek egindako eskabideak bete, praktikak egiteko ikasle kopuru nahikorik ez zegoelako.

2014an Hirigintzako XXXIX (Bilbo, 2014-2015) eta XL (Donostia, 2014-2015) ikastaroen edizioen deialdia egin da.

**Beka-matrikulak:** Ikastaroekin batera sei beka matrikula emateko deialdia egin da; lau Bilboko ikastaroan (horietatik hiru esleitu dira) eta bi Donostiako ikastaroan (ez da bakar bat ere ez esleitu).

## Ikastaro monografikoak

Ikastaro monografikoak, jardunaldiak, mintegiak eta tailer laburrak Hirigintzari, Lurralde Antolamenduari eta Ingurumenari buruz. Horien artean garrantzitsua izan da “**4/2013 LEGEA, ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO MERKATUA MALGUTZEKO ETA SUSTATZEKO NEURRIEI BURUZKOA**” (Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 12an).

### 6. TAULA. 2014ko EVETUKO datuak

	Zenbat prestakuntza-ekintza	Helburuen lorpena zehaztuta duten prestakuntza-ekintzak	Zenbat matrikula	Zenbat emakume matrikulatuta	Zenbat gizon matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagirien %
Modulu anitzeko ikastaroak	7	7	210	139	71	468	98,71
Ikastaro monografikoak	14	10	347	167	180	218	92,48
Guztira	21	17	557	306	251	686	94,61

## HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

### Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako hizkuntza-prestakuntza

- **Oinarrizko ikastaroak**, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailara artekoak:
  - Maila, modulu eta trinkotasun desberdinetakoak dira; udako ikastaroak ere badaude
  - Aurrez aurrekoak nahiz lineakoak dira
- **Goi mailakoak**, 4. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailaren araberakoak:
  - Aurrez aurrekoak nahiz lineakoak

### Udaletan eta mankomunitateetan ordezkapenak egiteko dirulaguntzak

Dirulaguntzak ematea IVAPekin hizkuntza-prestakuntza eta normalizazioaren arloan hitzarmena izenpetuta daukaten toki-administrazioei, euskarako ikastaroetara joan daitezzen liberatzen dituzten langileen ordezkapenengatik.

## ELEBI programa

ELEBI programak laguntza pertsonalizatua eskaintzen die erabilera-planetan sartuta dauden langileei. Baina, trebakuntzak ez bezala, ELEBI programak behar komunikatibo antzerakoak eta lan-jardun bertsuak dauzkaten langileei eskaintzen die prestakuntza, mintegietan bilduz. Honakoak dira, adibidez, mintegietan biltzen direnak: diru-laguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak, harrera postuetan dauden langileak...

Mintegietan lautik seira bitarteko lan-taldeak eratzen dira; astean ordu eta erdiz, batez beste. Mintegi bakoitza irakasle-tutore batek bideratzen eta gidatzen du, eta langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonala izaten du tutorearekin.

## Erabilera-planetan sartuta dauden langileentzako Prestakuntza

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira eta helburu eta langile-profil jakin bati begirakoak dira:

- Birziklatzeko ikastaroak
- Ahozko jarioari buruzko ikastaroak
- Administrazio-hizkera. Lineako ikastaroak:
  - Gutuna eta ofizioa
  - Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria
  - Bilera-akta, iragarkia eta txostena
- Administrazio-hizkerari buruzko ikastaroa
- Administrazio-idazkerari buruzko ikastaroa (gaztelaniaz)
- Hizkera juridikoa (lineakoa)
- Itzulpenaren oinarriak itzultzaile ez direnentzat
- Kalkobidearen eragina
- Esaldiaren informazio-antolaera zorrozten
- Joskera-korapilo nagusiak askatzen
- Idazkuntza hobetzeko baliabideak
- Administrazioan komunikazioa erraztu (lineakoa)
- Weberako nola idatzi (lineakoa)
- Euskarazko baliabide eta tresna informatikoak
- Jendaurrean efikaziaz hitz egitea
- Zuzenbideko profesionalak trebatzen
- 2.HE / 3.HE / 4.HE, azterketak prestatzeko ikastaroak
- Euskararen erabilera soziala



## Datuak

### 7. TAULA. Hizkuntza-prestakuntzako ikasleak (2013/2014 ikasturtea)

	Astean, 10 ordu	25 ordu, Barnetegia	Autoikaskuntza	4. HE	Udako ikastaro	Besterik	Guztira
E. Jaurlaritza	210	19	115	44	66		454
Foru adm.	153	59	31	25	47		315
Toki adm.	333	36	89	71	94		623
Osakidetza	700	128	314	7	69		1.218
UPV/EHU	79	21	5	13	19		137
Beste batzuk						47	47
<b>Guztira</b>	<b>1.475</b>	<b>263</b>	<b>554</b>	<b>160</b>	<b>295</b>	<b>47</b>	<b>2.794 *</b> (2.029 E / 765 G)

\*E: emakume / G: gizon.

### 8. TAULA. Toki-administrazioetako ordezkapenatarako diru-laguntzak (2014)

Diru-laguntzen kopurua guztira	150.598,59
2014an hitzarmena sinatu duten erakundeak	8
Hitzarmena sinatuta duten erakundeak guztira	192

### 9. TAULA. ELEBI (2014)

Mintegi kopurua	50
Langile kopurua	245 (164 E / 81 G)*

\*E: emakume / G: gizon.

### 10. TAULA. Euskararen erabilera-planetan daudenentzako hizkuntza-prestakuntza (2014)

	Taldeak	Ikasleak
Birziklatze-ikastaroa (2. HE)	4	47
Birziklatze-ikastaroa (3. HE)	1	7
1.HE: ahozko jardunean hobetzeko ikastaroa	2	18
Ahozkoa 2. HE	6	61
Weberako nola idatzi	3	61
Administrazioan komunikazioa erraztu	4	57
Administrazioan nola idatzi	2	18
Euskarazko baliabide eta tresna informatikoak	2	26
2.HE: azterketa idatzia	1	17

	Taldeak	Ikasleak
3.HE: azterketa idatzia	1	23
4. HE: iritzi-artikulu idazteko estrategia	2	33
Curso de redacción administrativa	3	40
Hizkera juridikoa	3	46
Itzulpenaren oinarriak itzultzaile ez direnentzat	4	42
Zuzenbideko profesionalak trebatzen	3	28
Kalkobidearen eragina	2	18
Euskararen erabilera soziala	1	9
Idazkuntza hobetzeko baliabideak	2	37
Bilera-akta, iragarkia eta txostena	2	44
Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria	2	31
Gutuna eta ofizioa	3	46
Esaldiaren informazio-antolaera zorrozten	2	39
Jendaurrean efikaziaz hitz egitea	4	52
Joskera-korapilo nagusiak askatzen	3	50
GUZTIRA	62	850 (624 E / 226 G)*

\*E: emakume / G: gizon.

## PERTSONEN HAUTAKETA ETA KONPETENTZIEN EBALUAZIOA

### HAUTAKETARAKO PROZESUAK

#### *Epaimahaietan parte hartzea*

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordezko bana izendatzen du euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurrera eramaten dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

#### *Probak prestatzea edo/eta zuzentzea*

Zenbait administraziok eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzen, aplikatzen eta zuzentzen ditu IVAPek.

### *Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan*

- Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarriak egin, ikasgaiak taxutu...); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak...).
- Informazioa bidaltzea (oinarrien ereduak, txosten juridikoak, eta lan-poltsetan lanerako prest dauden langileen izenak).

### *Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak*

EAEko administrazio orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

### *Lan-poltsak osatzea*

EAEko administrazio orokorraren aldi baterako langile-beharrei erantzuna emateko lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

### *Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa ematea, eta informazioaren harpidedun egiteko aukera ematea*

Euskal administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz, eta horren gaineko azken berriak interneten bidez jaso ahal izateko harpidetza egiteko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.



Proba psikoteknikoa egiten.

### Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea

